

Antropologia ekologikoa: ikerketa prozesualaren estrategiak

Pio Perez Aldasoro
Antropologian doktorea

Ikerketa prozesualaren estrategiek aukera eskaintzen digute antropologiaren zenbait korrante uztartzeko, besteak beste, ekologia eta ekonomia. Esparru teoriko hori baliagarria da prozesu ekonomikoak, teknologiaren fenomenoak zein gizarte-harremanak landu ahal izateko.

Procedural research strategies enable us to interrelate the different currents, such as the ecological or the economic one. This theoretical framework is valid in order to study the economic processes, the technological phenomena and the social relations.

1. Sarrera

Idazlan osoan zehar agerian geratuko dira ikuspuntu prozesuala zer den adierazteko erabili behar ditugun gizartearen eta kultur antropologiaren barneko kontzeptu eta teoriak. Izan ere, erabilera horren ukitua, nagusiki, bi alderditan isla daiteke: alde batetik, antropologia ekologikoan eta, bestetik, ekonomia-antropologiaren zenbait posiziotan, zehazki, ekonomia politikoarenean. Gure lanean, bi antropologia-esparru horiei lotuko gaitzaizkie.

Ikerketa-estrategia diferente horiek uztar daitezen, saiakera handiak egin dituzte ekologia prozesuala delakoa aipatzen duten autoreek. Antropologiaren bi korrante teoriko horiek erabiltzearen arrazoia, beharbada, eklektikotzat jo daiteke, baina, nire iritziz, bi planteamenduen oinarrian dauden materialismoak pareka ditzakegu, funtsean berdintsuak baitira.

Antropologia ekonomikoak sistema ekonomikoaren elementu ezberdinak, kultura arteko ekarpen ekonomikoa eta jarduera ekonomikoaren sistema sozio-kulturala ditu aztergai. Gainera, fenomeno ekonomikoak gizartearen barruan daude eta kontsiderazio horrek inplikatzeko du funtzio ekonomikoak erakunde-mota desberdinetatik eraiki daitezkeela edo, alderantziz, fenomeno ekonomikoak agerian daudela edozein kulturatan, eta ekonomiak eragiten duela bizitza sozialaren gainontzeko dimentsioetan.

Prozesu ekonomikoek (eta arrantza hori dela uste dugu) harremanetan jartzen dituzte lana antolatzekeo erak, baliabideen gaineko kontrola eta ustiatutako ondasunen banaketa. Ildo horretatik, antropologia ekonomikoa lantzen duten zenbait autorek aberastasun eta botererainoko sarbidea eta sarbide honetan gauzatzen diren harreman sozialak aztertzen dituzte.

Prozesu ekonomikoek buruz, ekologia politikoak ere badu zer esanik. Ekologia politikoan uztartzen dira ekonomia, ekologia eta politika, besteak beste, eta helburuen artean kontuan hartzen ditu giza honetan ingurunearen erabilera eta bere degradazioaren zioak aztertzea. Baina diziplina honetan, gauza zehatzetara joanik, logikoa da kulturari etengabeko erreferentziak egitea. Era berean, eza-gupen-multzoen sistemaren aipamenak egiten ditu edota giza taldeok nola erabiltzen ditugun baliabideak, bai eta erakundeek nola arautzen dituzten baliabiderako sarbidea eta erabilera ere.

Dena dela, produkzio-eragiketarako gizakia naturarekin harremanetan jartzen du, baina harreman hori ez dago bakarrik teknika edo inguruneak baldintzatua: gizakia/natura harremanak bestelako dimentsio sozial eta politikoak ere baditu. Hori dela eta, ongi deritzot, bada, dimentsio horiek (soziala zein politikoa, zein kultura artekoa edo ekonomikoa) uztartzeari.

2. Antropologia ekologikoa

Antropologia ekologikoaren lehenengo urratsetan ekosistema berezietan iraun ahal izateko giza populazioak erabiltzen zituen egokitze-prozesuak aztertu ziren. Korrante teoriko horretako lan etnografiko gehienek teknologia ahuleko gizarteak

zituzten ikergai, hauen energia-trukeen kalkuluek prozesu esanguratsu anitz adieraz baitzezaketen. Sarritan, garrantzi berezia eman zitzaion antropologia ekologikotik giza populazioaren inguruneekiko egokitze homeostatikoari, aldaketa eta egokitze txarrerako espazio txikiak edo marginalak utzirik. Hala ere, jakina den bezala, giza taldearen egokitzea ez da inoiz erabatekoa izan, zeren inguruneak aldatu egiten baitira eta aldaketak gizakiari eragozpen desberdin berriak aurkezten dizkio, eta hauetara giza populazioak egokitu behar dira berriro ere.

Ikerketa-estrategia horrek gizarte aurreratuei aurre egin behar zienean arazoak agertzen zituen, zeren talde horien ekosistemarekiko harremanak faktore anitzek baldintzatuak zeuden, eta hauetan dibertsitatea ekidin ezinezkoa zen.

Testuinguru horretan, gizarte konplexuen azterketetan, azpimarratzekoa litzateke Steward-ek gertakizun sozialei eta kulturari buruz zuen ikuspegi materialista, eta ekarpen honen ildotik antropologia ekologikoak egin zuen urratsa. Steward-i produkzioaren bitartez ingurunea ustiatzeko teknologia nola erabiltzen zen aztertzea interesatzen zitzaion, bai eta subsistentziarako tekniken antolaketek nola baimentzen zituzten eredu sozialak ere. Horrekin batera, ekologia kulturala aztertzeko metodoa plazaratu zen:

Ekologia kulturalak ez dizkio sortzen printzipio aplikagarriak edozein kulturatako edo ingurunetako egoerari. Ekologia-mota horrek adierazi nahi du, ordea, zein ezau-garri kultural eta zein eredu adierazgarri ezartzen diren eremu ezberdinetan, eta honetan gizakiaren eta gizartearen ekologiatik aldetzen da. Neurri berean, ekologia kulturala pentsamendu erlatibista eta neobolutibotik ere bereizten da, bi pentsamendu-mota horiek uztartzen baitituzte herri-ingurunea (kultura kanpoko faktorea) eta kultura kulturatik datorrelako ustea. Horregatik esan daiteke ekologia kulturalak arazoak eta metodoa eskaintzen dituela (Steward, 1992: 339).

Steward-i (1956), Puerto Rico aztertzeko erabili zituen eskemek aukera eman zioten komunitate edo lurralde konplexuak aztertzeko. Horretarako, komunitatea azpi-talde kulturaletan, klase-mailako azpi-taldeetan eta nazio-mailako erakunde formaletan banatu zuen. Puerto Ricoren adibidearekin komunitate eta azpi-taldeak aldaketa esanguratsuak ikertu nahi izan zituen Steward-ek, osotasun baten partaideak balira bezala, atzerriko beste edozein herrialderen eragin politiko zein ekonomikoaren mende. Azterketa-metodo horrek ekologia kulturalaren hiru prozedura nagusiak erabiltzeko aukera ematen zuen.

Lehenik eta behin, ingurunearen, produkzioaren eta teknologiaren arteko harremanak ikertzeko aukera ematen zuen. Ikerketa horrek bere baitan hartu zuen kultura materiala deritzana. Bigarrenik, eremu zehatzeko ustiaketaen jarrera-ereduak azaltzen ziren teknologiaren bitarteko azterketekin. Ustiaketaen jarrera-ereduak ez zeuden era zuzenean inplikaturik bakarrik elikagaien edo ondasunen produkzioan, baizik eta baita elikagaiak garraiatzeko erraztasun edo zailtasunetan ere.

Hirugarrenik, Steward-ek, prozedurak aztertzean, ingurunearen ustiaketa garatzen ziren portaerak agertzen zituen eta hauek zer nolako eragina zuten kulturaren edozein mailatan.

Steward-en planteamendu horrek egingarri bihurtzen zuen inguruaren azterketa soilak uzten ez zuen egokitze kulturalaren ikerketa. Halaber, ohargarria da ikustea historia sarritan agertzen zela ikerketan, ekosistemarako egokitze soilak adierazten ez zuen zenbait elementuren presentzia historiak errazten zuela, zehazki, bilakaera historikoek markatzen zituzten alderdiak.

Hiru elementu horiek (ustiaketaren jarrera-ereduak, portaerak eta historia) zerikusi handia zuten ingurunearen ikerketekin eta giza egokitze teknologikoekin; eta berean, inguruneak agertzen zituen eragozpenen aurkakoak ere azaltzen ziren. Baina aipatutako eskemetan, Steward-ek ez zien garrantzi handirik eskaini erlazio ekonomikoei. Horrela bada, antropologo honi kritikatuko zaio produkzioaren alderdi sozialak baliabide teknikoaren mendean geratzen zirela. Planteamendu horrek, orduan, ekoizpenari garrantzia eman bazion ere, haren alderdi tekniko edo teknologikoan erortzen zen eta ez ekoizpenak duen alderdi sozialean.

Dena den, aipatutako autorearekin antropologia ekologikoa aldatu egin zen: gizarte konplexuak aztertzeke moldagarriago bilakatu zen, naturaren eta kulturaren arteko harremanetan zuhurrago jokatu zuen eta, azken finean, antropologia ekologikoa biologikoaren parean egon ahal izan zuen. Haatik, ekonomiarekin loturiko zenbait arazok oraindik bertan jarraitzen zuen.

3. Ikuspuntu prozesuala

Testuinguru horretan, 70.eko hamarkadan, antropologia ekologikoaren barnean agertzen dira ikuspegi prozesualak. Hainbat autorek defendatzen zuten ikuspuntu prozesuala gaineratu behar zela, zeren baliabide natural kritikoak, denboraren eta lekuaren arabera desberdinak izan baitzitezkeen bilakaera historikoan.

Joera horien azterketa zertzen da gizarte-taldean eta gizabanakoaren jardueretan gertatzen diren aldaketetan, zehazki azterketak ardura jartzen du jarrerek eta kanpoko baldintzek elkarri eragiten dizkieten mekanismoetan (Orlove, 1980: 224).

Historiaren aportazioa ekologia kulturalaren neofuntzionalismoaren aurkako erreakzioa izan zen, zenbait autoreren ustez. Historiaren aportazio horretan gaineratu behar da Godelier-ek bere *Lo ideal y lo material* liburuan planteatzen duena. Hau da, gizakiaren eta naturako beste izakien arteko lehenengo diferentzia da; gizakiek bizitzeko gizartea eta kultura ekoizten dituztela, eta, honekin batera, historia eraikitzen dutela. Bigarrena, berriz, gizakiak ez diren gainontzeko izakiak ere historiaren fruituak direla, baina beraiek egin ez duten historia batenak, naturarenak, alegia. Eta bilakaera diferente hori planteatzeko honako hipotesia mahairatu zuen:

Gizakiak natura itxuraldatzen duelako du historia, eta gizakiaren izaera bera gaitasun hori izatean datza. Ideia hauxe da: gizarte berriak sortzeko, gizakiak mugimenduan jartzen dituen indar guztietatik, indarrak sakonena da naturarekin ezartzen dituen harremanak aldatzea, natura bera itxuraldatuz (Godelier, 1984: 17-18).

Hori esateko, Godelier-ek Marx-en laguntza bilatu zuen. Marx-ek (1972) zioen gizakiek sortu behar zituztela beren existentziaren baldintza materialak. Izan ere, Marx-ek uste zuen sortze hori maila kolektiboan, ez gizabanakoarenean, burutzen

zela eta, horregatik, existentziaren ekoizpen sozialaz hitz egiten zuen filosofoak. Halaber, gaineratzen zuen ekoizpenaren ondorioz gizabanakoa harreman-sarean sartzen zela (harremanak ez dira bakarrik ekonomikoak, baizik eta politiko, sozial, edo ideologikoak), eta honek gizabanakoaren kontzientzia determinatu eta irudikatzen zuen.

Orlove-ren aipuak eta Marx-enak hurbiltzen gaituzte ikuspegi prozesualaren etorrerarekin antropologo ekologikoek gehien eztabaidatu duten arazora, hots, ikuspuntu sistemiko edo gizabanakoaz parte-hartzea (Martínez Veiga, 1985: 24). Antropologia ekologikoak, lehenengo urratsetan bederen, garrantzia ematen zion jokaera kolektiboetan inguruneak zuen eraginari, gizabanakoaren jarrerari uko eginez eta azterketa sistemikoetara hurbildu nahian. Ikuspuntu prozesualetan, aitzitik, arazoa irekita geldu dadin, ikerketan aztertu beharreko egokitze esanguratsuetatik abiatzen da, gizabanakoak subjektuak balira bezala eta inguruneak planteatzen dizkion eragozpenak gainditzeko gizakiak zein erantzun-mota ematen duen ikusiz.

Bestalde, ikuspuntu prozesuala egokitze-estrategiaren azterketari esker aberastu zen. Ekologo prozesualek, Frederik Barth-en (1974) lanetan oinarriturik, kontsumo- eta iraute-pautetan har zitezkeen askotariko aukerak aztertzea zuten helburu. Haien planteamenduetatik interesgarria suertatzen da egokitze-estrategia kontzeptua. Kontzeptu horrek ohartarazten digu subjektuak, eginkizun batzuen alde erabakitzerakoan, alternatibak osatzen dituela, komunitateak imita ditzakeenak. Komunitatearen eta gizabanakoaren arazoa osotasunean hartuta, joera kolektiboa eta gizabanakoa uztartu egiten dira.

Estrategia egokitzaileak gizakien jarreretako maila kontzientean agertzen dira; prozesu egokitzaileak, berriz, ez dira kontzienteak, behatzaileak eta antropologoek aztertzen dituzte (Martínez Veiga, 1985: 26).

Testuinguru horretan argitaratu zuen Bennett-ek bere *The ecological transition* (1976) liburua. Bertan azaldu zuen, besteak beste, giza komunitateak indar nazionaletara egokitu behar direla, nazioartekoetara zein herriko ingurunera, natura/kultura binomioko ezberdintasuna murriztuz.

Bennett-i interakzioa bi mailatan interesatzen zitzaioela esan daiteke: alde batetik, giza baloreak, beharrak eta helburuak; eta, bestetik, baldintza materiala, teknologia eta antolaketa soziala. Neurri berean, autoreak determinismo monista, eta, maila batean, bestearekiko mendekotasuna alboratuz, ikuspuntu dialektikoari eutsi zion.

Modu horretan, Bennett-ek ikuspuntu sistemikoaren eredu malgu baten bitartez aztertuko zituen prozesu sozioekonomiko konplexuak. Gizabanakoaren erabakiak aztertzerakoan, eredu horrek ondokoak hartu zituen kontuan: mikromaila, instituzioen presio edo laguntzak, pentsamendu herrikoia eta giza jarduera, eskala makroko erakundeak mugatzen saiatuz.

Bennett-en aburuz, antropologia kutsuko giza ekologiak sistema konplexuetan arrakasta izan zezakeen, baita lurralde geografiko, inguru-arazo eta giza erantzun anitzen azterketetan ere. Autoreak uste zuen gizakiaren eta ekosistemaren arteko intererlazioak mugatu egin behar zirela, ikuspuntu diakronikoa erabiliz, ingurune

soziala ere kontuan hartuta. Gizaki batzuk inguruneko partaideak dira; beste gizaki batzuek, berriz, ingurunea bera ustiatzen dute, bere onerako edo beharrak asetzeko. Bennett-ek erabili zuen paradigma metodologikoa interdisziplinaritateaz eta eklektizismoaz markaturik zegoen. Iritzi berekoa da Forman, ekologo prozesuala:

Faktore ekologikoez, sozialez, egiturazkoek eta erakunde mailakoek baldintzatzen dute erabakiak hartzea eta hortik ondorioztatzen den jarrera (Forman, 1970: 131).

Bi korrante teorikoetatik jasotakoa laburbildu nahian, esan daiteke gizakia ekoizpen sozialaren eta naturalaren ondorioa dela, aldagai anitzez inguratua, ingurunea mugagarria eta baldintzagarria baita. Hala ere, inguruneak ezaugarri horiek baditu ere, gizakia, bere lanaren bidez, eta hainbat ekoizpen-moduren bidez, eskainitakoaz jabetzen da (baliabide erreal edo balizkoaz) eta, ondorioz, ingurunea eralda dezake.

Ekoizpen-moduek egokitze-moduak ordezkatzen dituzte. Orduan, modu horiek muga ukitzen dutenean edo erreprodukzio-sistemarekin kontraesanetan sartzen direnean, ekoizpen-formak ezegoki bilaka daitezke, eta egokitze-estrategia berriak eskatu.

Ekoizpena naturaz baliatzeko gizakiak burutzen duen jarduera da, eta produktu erabilgarriak lortu ahal izateko, lanaren eta tresnen bitartez, natur baliabideak eraldatzea inplikatzeko du. Ingurunea eta teknologia sozialki ekoizpenei esker osatzen dira, eta ekoizpenean ezartzen diren harreman sozialak lan-prozesuetan gauzatzen dira. Horrela izanik, ekologia, teknologia eta lana zuzenean elkarturik suertatzen dira (Contreras, 1991: 343).

Ekoizpenak harremanetan jartzen ditu gizartekideen behar eta interesak eta baita giza talde batzuek aukeratzen dituzten estrategiak ere. Horregatik, ekoizpenaren edozein azterketa ikuspuntu askotatik garatu beharra dago, baina azterketa horrek beti ingurunearen mugetatik aurrera jo behar du, egokitzeari erantzun tekniko multzoa baino gehiago emanaz. Hori dela eta, ekoizpena eta beronen azterketa, antropologia ekonomikoaren eta ekologikoaren arteko faktore integratzaile bilakatzen da.

Hori kontuan harturik, esan daiteke arlo ekonomikoa eta ekologia-esparrua uztartu egin daitezkeela eta, Collins-ek (1993: 180) proposatzen duen bezala, ekoizpenaren bitartez egin daitekeela.

Lehenik, arreta lan-prozesura bideratu beharra dago. Bigarrenik, aztertu beharra dago indar materialak zein alderdi sozialak nola uztartzen diren ekoiztutako lanean eta, azkenik, gizaki/ingurune binomioko harremanari buruzko historia egin.

Koordenada horietatik ondoriozta daiteke natura edo ingurunea, hein handi batean, giza eraikuntzari esker osaturik dagoela, eta ez dela gizakiaren kanpoko zerbait:

Ingurunea ulertzeko izaki pasiboa balitz bezala, gizakiari muga jarriko diona, hartu beharrean, gizakiaren jarduera ekoizlearen eta baliabide fisikoen arteko harreman dinamikoan fokatu behar da. Jarduera horren izaerak kontuan hartu behar ditu: zein diren inguruneko baliabide kritikoak, zein diren horiek denbora eta leku

zehatzetan, zein baliabide horietako sarreren banaketa, eta, azkenez, zein diren sarrera horientzat ematen diren konponbide instituzionalak (Painter, 1995: 7-8).

Bibliografia

- Armañanzas, E., Díaz Noci, J. eta Meso Ayerdi, K. (1996): *El periodismo electrónico. Información y servicios multimedia en la era del ciberespacio*, Ariel, Bartzelona.
- Barth, F. (1974): "Relaciones ecológicas de grupos étnicos en Swat, Pakistán del Norte" in Theodorson, G. A. *Estudios de ecología humana*, 277-289, Labor, Bartzelona.
- Bennett, Jhon W. (1976): *The ecological transition: Cultural anthropology and human adaptations*, Pergamon Press, New York.
- Collins, J.L. (1993): "Marxism Confronts the Environment: Labor, Ecology and Environmental Change" in Ortiz, S. Lees, S. *Understanding Economic Process*, 179-188, University Press of America, New York.
- Contreras, J. (1991): "Los grupos domésticos: estrategias de producción y de reproducción" in Prat, J. Martínez, U, Contreras, J. eta Moreno, I. *Antropología de los pueblos de España*, 343-380, Taurus, Madril.
- Forman, S. (1970): *The raft fishermen: Tradition and change in the Bazilian peasant economy*, Indiana University Press.
- Godelier, M. (1989): *Lo ideal y lo material. Pensamiento, economías y sociedades*, Taurus, Madril.
- Martínez Veiga, U. (1985): *Cultura y Adaptación*, Cuadernos de Antropología, Anthropos, Bartzelona.
- Marx, K. (1972): *Contribución a la crítica de la economía política*, Corazón, Madril.
- Painter, M. (1995): "Introduction: Anthropological Perspectives on Environmental Destruction" in Painter, M. Durham, W.H. *The Social Causes of Environmental Destruction in Latin America*, 1-21, The University of Michigan Press.
- Steward, J. (1956): "The People of Puerto Rico", University of Illinois Press, *Anthropology*, 9, 235-272.
- , (1992) "El concepto y el método de la ecología cultural" in Bohannan, P. Glazer, M. *Antropología, lecturas*. Madril. Mac Graw-Hill 334-344.